




Ikusgarritasuna izan da lehenengo Zaldi Egunaren ezaugarri nagusia

LEITZA ▶ Eguraldi ederrak lagunduta, Inguruarte zalditegi handi bilakatu zuten atzo Aurrera Perra-koek

IKUSGAI ▶ Euskal Herri osoko 100 zaldunek probak eta heziera desberdinen erakustaldiak egin zituzten ▶ 4



Mendian zaldiz ibiltzen direnean egin behar izaten dituzten hainbat pausorekin zirkuitua prestatu zuten atzo: errekan sartu, koskak igo, ibixiturak itxi eta ireki, zubiak gurutzatu, biraketak... JAIONE ASTIBIA



J. ASTIBIA

Gaur agurtuko dituzte aurtengo San Pedro jaiak

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Areso (irudian), Asteasu, Leaburu eta Urkizuko egunotako jai giroari Larraitzekoa gehituko zaio gaur ▶ 5

TOLOSA ▶

Amarozen ere sartu dira jaien azken txanpan

Urteroko arrakastari jarraituz, Ajoarriero Lehiaketan aritu ziren atzo dozena bat talde ▶ 5



Ajoarriero Lehiaketako parte-hartzaile bat, lanean. I. GARCIA

TOLOSALDEA ▶

‘Lan tailerrak’ programa, lan eginez ikasteko aukera

Tolosaldea Garatzenek eta INEMek sustatutako proiektuan 22 lagun ari dira, «esperientziarekin gustura» ▶ 6-7

ASTEKO IRUDIA ▶

Gabirondok irabazi du Gipuzkoako Sega Txapelketa

Joxe Gabirondo gazteluarrak irabazi zuen Oiartzungo Piko-keta zelaietan jokaturako Gipuzkoako Sega Txapelketaren finala, ordubetean 3.384 kilo moztuta. Beste hiru ordezkariak ere Tolosaldekoak ziren: Mikel Aranalde gazteluarra sailkatu zen bigarren (3.090), Andoni Zuriarrain amasarra hirugarren (2.855,5) eta Mikel Alkorta asteasuarra laugarren (2.800,5). «Indarrak neurtzea eta lan txukunena egitea izan dira gakoak», adierazi zion HITZARI Gabirondo txapelkunak. 400 bat lagunek jarraitu zuten lehia. Argazkian, Gabirondo (behetik hasita bigarren erroan, eskuinetik bigarrena), bere lan taldearekin. ASIER ETXANIZ



UZTURRETIK ▶ BITTOR MADINA

Edertasuna



Auskalo zenbat aldiz erabiltzen dugun *eder* hitza, nola ahoz hala isilian, begiztatuz bakarrik. Zer da *eder* hori eta berarekin sortzen den edertasuna?

Natura, animaliak, gizakia orokorrean, sexu berdineko eta desberdineko pertsonak *polit*, *panpox*, *atsegin*, *miresgarri* eta abar izenlagunez janzen ditugu. Konturatu gabe, berehalaxe aurkakoak edo antonimoak eransten ditugu: *itsusi*, *zatar*. Bi kontzeptu kontrajarri hauekin

jolasteko ohitura galanta dugu, arlo gehienetan, gainera. Mediatekak eta Lehiaketek ere horretara bultzatzen gaituzte. Aldrebezkoak gara.

Baina askotan, bizitzan, itsusiztat hartzen ditugun izate, pentsaera eta egite asko errealitate berak edertzat geureganatzea lagunduko digu. Eguneroko errealitateak kontrakoak omen diren bi kontzeptu horiek ez bereiztea laguntzen digu. *Itsusi* omen dena, *eder* bihurtzeko aukera izaten dugu. Orduan, dikotomiarik ez ikusten ahalegintzen gara eta ahal den gehiena *polit*tasun multzo zabalean murgiltzen. Ez dugu *zatarrik*, *politik* baizik. Bestelakoa izaten bada, beharbada geure heldutasun eza da edo geure barne-naturaren gaindiezinezko indarra.

Literaturak, zentzu zabalean, ez digu soilik plazerra ematen; ikasteko Unibertsitate ere izan daiteke Literaturako mundu hori. Thomas Bernhard idazle austriarrak, liburu sakon bezain ederrak idatzi zituenak, *Ahotsen imitatzailea* liburuan kontaketa labur eta esan-guratsua oparitzen digu eta bide zuzen horretara bultzatzen gaitu.

«Herriko Bentan afaltzen ari ginela hogeita hamar urteko gizakumea sartu zen barrura. Bazterrean jarri zen, gu geunden mahaiaren ondoan. Isilik eta bakarti. Horrela ordu osoan. Harriturik geunden eta horrelako batean, gurekin egotera gonbidatu genuen. Berehalaxe, besterik ezean, andre baten bila zebilela eta ea berarentzat norbait *aproposa* ezagutzen genuen eta non

aurki zezakeen esan zigun. Txantxa giroan ginelarik, eguzkiak oso gutxi josten zuen 'Emakumeen Putzu' izeneko leku ilunean, hantxe bertan, berarentzat emakume *aproposa* bazegoela bota genion. Toki hartan, eta hau ez genion esan, hanka eta besoz deforma, hobeto esanda, guztiz deforma zen 40 urteko emakumea bizi zen. Animalenganako zuen maitasunagatik eta pertsonenganako zuen begikotasunagatik oso estimatua zen emakume hori.

Gizakumea 'Emakumeen Putzura' joan zenetik behin bakarrik itzuli da herriara; zertara eta guztiz deforma den emakumearekin herriko elizatzokan ezkontzera. Ezkondu ondoren, haraxe itzuliz, beste hamar urtetan hantxe bizi dira, euren edertasunean eta euren edertasunarekin, zoriontsu izaten».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

IRITZIA ▶ IÑIGO MARTIN (TOLOSANDBLUES JAIALDIKO ANTOLATZAILEA)

Tolosand Blues 06

Tolosand Blues 06 —Tolosa and blues hitz jokoa eginez— asteburu honetan ospatzen ari den jazz eta blues jaialdia da.

Bi musika mota desberdin baina, era berean, aspaldidanik uztarturik, eta jaialdi askotan bat egiten dutenak, sarri ez baita ulertzen bata bestea gabe.

Aipaturiko bi musika estilo hauek, jazz eta blues, gehiengo baten gustukoak direla esan genezake. Ez dezagun ahaztu biak joan den mendeurrenoko hasieran sortuak izan zirela, eta egun, arestian aipatu dudak bezala, jaialdi askotako programazioa partekatzen dute.

Orain bi urte, 2004ko uztaileko goiz sargori batean eta kasualitateak horrela aginduta topo egin genuen Lopez Mendizabal kalean Jokin Ansorena Kultur teknikaria, Fronton kafetegiko Juanxto Izagirre eta hirurok.

Zalantzarik gabe, une egokia aspaldian buruan zebilkidan proposamena luzatzeko nere bi solaskideei, alegia, Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan blues eta jazz doinuak zuzenean ikusteko eta entzuteko aukera bazegoen, zergatik ez Tolosan.

Erabateko adostasuna izan eta gero udazkenean aurrenoko bilerak iritsi ziren, aipatu dudak hirukoia gehi Angel Alonso.

Joan den urtean, eta estreinako aldiz, Tolosand Blues 2005 blues jaialdia egin zen. Zalantzarik gabe, proposamen berri honek osatu eta aberastu egiten ditu urtean zehar Tolosan antolatzen diren musika emanaldiak.

Aurtengo programazioak iaizkoarekin konparatuz jauzi kualitatiboa izan du, Ingalaterratik iritsi baitzaigu Paul Lamb armonika-jole ospetsua. Era berean, blues zein jazz estiloetako doinu klasikoak eta garaikideak entzungai daude. Iñaki Salvador, Naco Goñi, Francisco Simon, Stay Blues... Interesgarria oso gaur Fronton kafetegian Elkano Browning Cream hirukoia eskainiko duen kontzertua.

Honako hauxe bigarren edizioa den arren, gustatuko litzaidake pentsatzea Tolosand Blues jaialdiaren hasieran gaudela, eta aurten egin den legez, datozen urteotan ere gero eta programazio hobea lorzea.

Lerro hauetatik eskertu nahi dut batetik Tolosako Udala, emandako urratsagatik, eta bestetik Fronton kafetegia, urtean zehar kalitatezko blues eta jazz kontzertuak antolatzeagatik. Ahaztu gabe jaialdi honetako kolaboratzaileak, Alde Zaharreko Ostalariak, Insalua, eta Euskadiko Kutxa.



Iñaki Salvador piano-joleak (ezkerrean) eta bere taldekideek ostiral gauean eskainitako kontzertuak jende asko erakarri zuen Fronton kafetegira. I. TERRADILLOS



Elkano Browning Cream, arriboko irudian. Haien kontzertuak itxiko du gaur Tolosandblues. Hiru kide osatzen dute taldea (ezker-eskuin): Mikel Azpiroz teklatuan, Karlos Aranzegi baterian eta Fran Iturbe gitarran. HITZA

ESANAK ▶




KARLOS IRAZU
ESKULTOREA

«Mendian topatzen nituen enborrak, adarrak, zainak edo zuhaitzak ekartzen nituen sentera. Gero, haiek sentiarazten zidatenari forma ematen ahalegintzen nintzen. Jendeari gustatu egiten zitzaien, eta saltzen hasi nintzen. Dagoeneko zortzi urte daramatzat egurra lantzen eta honetatik bizitzen»

«Artisauontzat interesgarriagoa litzateke gune finkoak antolatzea, hala jendeak jakingo luke non gauden eta zer aurki dezakeen han; azoka batera joaten zarenean tristea da egun osoa pasatu eta denbora galtzen aritu zarela sentitzea»

'Diario Vasco' (2006-06-28)



ASTEASU: Guztiz eraberritua. Primerakoa. 36.500.000 pztz.
IBARRA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainu gela, trastelekua eta bi balkoi. Erabat berritua.
VILLABONA: 2 logela. 35.000.000 pztz.
IRURA: Promozio. 125 m²-ko pisua terrazarekin eta garajea. Urbanizazio pribatua eta frontoia. 53.000.000 pztz. Aukera aparta.
TOLOSA: San Francisco. Garajea. Informazio pertsonala.
TOLOSA: 80 m². Erdialdean kokatuta dago. Hormigoizko etxea 31.000.000 pztz.
VILLABONA: Apartamentua. Eraikuntza berria. Informazio pertsonala.
VILLABONA: 2 logela. 35.000.000 pztz.
VILLABONA: Apartamentu eraberritua kalitatezko materialekin. Aparta. Igogailu eta berogailuarekin. 43.000.000 pztz.

Errota 2 - Villabona
Olatzinmo@euskalnet.net
943 243 118 - 635 706 728

badugu GILTZA, badugu HITZA



Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolatetgia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAren egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAren egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna

TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK

GOIZETARAKO BI LANGILE BEHAR DITU

- 1-Magisteritzako titulua
- Haur Hezkuntzako berezitasunekoa duena. Erref.: HH
- 2-Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria. Erref.: THH

- Derrigorrezkoa: EGA titulua edo baliokidea.
- Ingelesaren ezagutza baloratuko da.
- Curriculumak e-mailez bidali behar dira tolosa@ikastola.net zuzenbidera. Jasoko diren azken eguna, uztailaren 5a.

LEITZA ▶ KIROLAK

Laugainka dotore!

Zaldi Eguna oso-osoan ikusgarrizkoa izan da, erakustalditan eta giro ederrean

JAIONE ASTIBIA

Bete-beteko Zaldi Eguna egin zuen atzo Leitzako Inguruarten Aurrera Perra taldeak, eguraldi ezin ederragoa ere lagun izan zutelarik. Zinez, zalditegi handi bilakatu zuten paraje hori, bertakoez gain, noski, Euskal Herri osotik etorritako 100 bat zaldidun bildu baitziren bertan, zein baino zein abere ederragoekin eta dotoreagoekin. Arraza, kolore, izaera desberdinetako zaldi eta behor, hantxe egon ziren bertara bildu zen jendetzaren erakusgarri egun guztian zehar; egon bakarrik ez gainera, euren jabeek abereekin egindako heziera ere frogatu zuten eta.

Hala, mendian zaldiz ibiltzen direnean egin behar izaten dituzten hainbat pausorekin

prestutako zirkuituan, errekan sartu, koskak igo, itxiturak itxi-ireki, pauso desberdinetan joan, biraketak, zubiak gurutzatu, aurreka eta atzeka, adin guztietako zaldunek parte hartu zuten, bakoitzak bere trebezia eta zaldiarekin egin duten lana agerian utziz.

Heziera desberdinen erakustaldia ere egin zuten, wester, espainiarra, naturala: laugainka joan eta bat-batean geldiaraztea; hankak goratzu gurutzatzen mugitzea; inoiz zelarrik jarri gabekoa hezitzea... Ikusleak txundituta gelditu ziren han ikusitakoarekin: «Erreza ematen du, baina zenbat denbora igaro ote dute aberearekin, horrela jartzeko». Bitartean, zalgurdia han ibili zen joan-etorrian; perratzten ere aritu ziren... Ikuskizun osoa!



Zirkuituko koska gainditzen, 73 urteko martzilarra. JAIONE ASTIBIA



Pottoka gainean nahiz zalgurdian ibiltzeko aukera izan zuten. J. A.



Perraketan ere aritu ziren; irudian hiltzeak sartzen ari da. J. A.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentua. 635 74 52 91.

Pasaten den egun bakoitzeko, errepikatuko ez den eskaintza bat

PortAventura 188€ (31.281 pta)

Fiteroko Bainu Etxea 237€ (28.433 pta)

Gran Canaria 700€ (135.470 pta)

Caledonia Aparthotelak 65€ (10.815 pta)

94€ (15.643 pta)

Picos de Europa 39€ (6.499 pta)

Burgos 53€ (9.818 pta)

EROSKI bidaiak

TOLOSA ▶

Euriak utzitako oparotasuna nabari atzoko azokan

Kalitate oneko barazki zerrenda, ziza horiak, onddoak eta kuletroak izan ziren erosgai

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso oparoa izan zen eskaintza alde-tik. Pasa diren egunen euriak, osasungarria izateaz gain, oso egoera onean utzi ditu gure mendiak eta baratzak.

Barazki zerrenda kalitate handikoa zen atzo: porruak, tipulak, azenarioak, letxuak, Ibarrako piperrak, pepinoa, kalabazina, tomatea edota lekak ikusi genituen, besteen artean, mahaietan, eta prezioak joan diren asteetakoak izan ziren.

Aipatzekoa ikusi genuen perretxiko zerrenda. Egun hauetako urak oso eragin ona izan du mendiengan, eta ziza horiez eta onddoez gain, kuletroak ere ikusi genituen Tolosan. Ziza horia 20 eurotan saldu zen, onddoak 22 eurotan eta kuletroa 30etan.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Japoniar azalea	5,00	8,00
Hortentsia	10,00	12,00
Txilarra	3,00	4,30

Bertako produktuak		
Tolosako Babarr.	8,00	12,00
Arrautzak	1,30	2,10
Ardigazta	14,00	18,00
Behigazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak		
Intxaurra	4,00	6,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Arrautzak	3,50	-
Dilistak	2,40	-

15 egunetako bidaiak AUTOBUSEZ eta KANPINETAN

<p>Eslovenia-Croacia Ekainak 30 - Uztailak 16 530€ tik aurrera</p>	<p>Bretaina Abuztuak 1 - 15 435€ tik aurrera</p>	<p>Txekia Abuztuak 1 - 15 390€ tik aurrera</p>
<p>Maroko (hoteletan) EUSKARAZ Ekainak 30 - Uztailak 16 530€ tik aurrera</p>	<p>PREZIOAREN BARNE: Garraioa, kanpinetako eta hoteletako egonaldia, bisitak, aseguruak, gida koordinatzaile bat,</p>	<p>Kortsika Abuztuak 16 - 31 390€ tik aurrera</p>

Segundo Izpizua 28 Donostia. Tel: 943 29 70 25 info@kultourbidaiak.com www.kultourbidaiak.com Ordaindu 6 hilabetetan interesik gabe

SAN PEDRO JAIK ▶

Haurren jai-gogoa

Areso, Asteasu, Leaburu eta Urkizun jaiak gozaten ari dira

IMANOL GARCIA

Jaiak egun bereziak izaten dira, eta horretaz biziki jabetzen dira herriko txikienak. Berrezkoa duten jolaserako eta ondo pasatzeko joerak esparru ezin hobia topatzen du festetan. Hala, Asteasun haurrentzako eguna izan zen eta Leaburun ere antolatu zituzten txikientzako ekitaldiak.

Asteasun goizean krosean eta marrazten aritu ziren. Haur pila bat bildu zen bai baterako zein besterako. Arratsaldean elkartu ziren Leaburuko frontoian haurrak jolasean aritzeko, helduak musean ari ziren bitartean. Areson, berriz, trikitixa doinuekin baserrietan eskean ibilitako herritarrak bazkaltzeko elkartu ziren. Urkizun, kanpai hots eta suzirien eztanda artean elkartu ziren auzotarrak afari legea egiteko.

Gipuzkoako aizkolari onenak

Gaur amaituko dira festak herri guztietan. Bost izango dira jai girorako aukerak: Areso, Asteasu, Larraitz, Leaburu eta Urkizu. Aipatzekoa da Leaburun jokatu delako Gipuzkoako I. Mailako Aizkolarien Txapelketa (18:30). Olasagasti, Peñagarikano, Txapartegi, Mugertza eta Azurmendi (Erasun ordezkatzuz) ariko dira aurrez aurre.

Herri kirolek ere bere lekua izango dute Asteasun, herritarrak elkarren artean lehiatuko baitira (18:00). Beste txapelketa batzuk ere jokatu dira: Urkizun toka (12:30) eta boloak (18:00), Leaburun toka (12:00) eta Asteasun Pala Txapelketa (12:00). Jaiak aitzaki aproposa dira bazkariak egiteko eta horretara bilduko dira Areson eta Larraitzen. Beste hainbat ekitaldi ere egingo dira eta, noski, horien artean giroa alaitzeko ardura duten musikariak ez dira faltako.



Aresoko zenbait gazte, atzo, eskean baserri baserri. I. ASTIBIA



Asteasun gogoz hartu zuten haurrek marrazkiak egitea. I. GARCIA



Leaburuko frontoian aulki jokoan, atzo, herriko txikienak. I. GARCIA

TOLOSA ▶ AMAROSKO JAIK



Ajoarrieroaren usain goxoa

Erredakzioa ▶ Urteroko arrakastari jarraituz, Ajoarriero Lehiketa izan zen atzoko Amaroako Jaien ekitaldi nagusienetakoa. Dozena bat talde aritu ziren prestaketa lanak egiten eguerditik hasita. Jai giroak gaur jarraituko du ekitaldi ugariarekin, ondokak, esaterako: fatxada eta balkoi loratu eta apainduen sari banaketa (13:30), auzo bazkaria (14:30) eta Amaroako dantza taldearen emanaldia eta aurrekua (18:30). Jaiak amaiera emango diete sardin erreak janez eta sagardoa edanez (20:00). I. GARCIA

ZIZURKIL ▶ KOADRILA EGUNA



Beroari aurre eginez

Erredakzioa ▶ Zizurkilgo hainbat koadrila elkartu ziren atzo Joxe Arregi plazan, Koadrila Egunean. Beroari aurre egin behar izan zioten, eta horretarako ondo prestatuta agertu ziren plazara: eguzkitakoak eta karpak jarri zituzten itzalean lasai jateko. Bazkari ondoko jolasetarako horiek guztiak kendu behar izan zituzten, eta orduan, eguzkipean, gehiago kostatu zitzaizen plaza erdira joatea. Hori bai, giro onak ez zuen huts egin. I. GARCIA

**SELEKTIBITATEAN
2006. URTEAN
% 100 GAINDITUAK!**

BATXILERGOAK

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natur eta Osasun Zientziak
- Tecnologikoa

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi Mailakoak

- Mekanizazioa
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak

Goi Mailakoak

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Instalazio Elektroteknikoak
- Gizarte eta Kultur Animazioa

KOLOKAZIO MAILA OSO ALTUA!

Enpresa-praktikak bertan eta atzerrian (aurten ipar irlandan, polonian eta lituanian)!



IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka

Matrikula epea:
ekainaren 30etik uztailaren 6 arte

SANTA BARBARA AUZOA eta KARMELO LABAKA
HERNANI
TELEFONOA: 943 551188
WEB: www.hernanibhi.com
E-MAILA: institutua@hernanibhi.com



GIZARTEA ▶

Lan eginez ikasi

Tolosaldea Garatzenek eta INEMek 'Lan tailerrak' izeneko programa jarri zuten martxan iragan urrian; guztira, 22 lagun ari dira igeltsero eta geriatría laguntzaile espezializazioetan

MADDI SOROA

Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak eta INEMek elkarlanean sorturiko programa da *Lan Tailerra*. Iazko urrian jarri zuten martxan, eta urrian amaituko da; urtebeteko iraupena du, beraz.

Programa honen bitartez, Tolosaldea Garatzenek herritarrari harrera eskaini eta haren kalitatea hobetu nahi du; horretarako, azken urteotan hainbat ekintza eta estrategia jarri ditu martxan. Agentziaren ustetan, herritarrak lan merkatuan sartzeko kezka izan du beti; hori dela eta, *Zerbitzuzko lan tailerrak Tolosaldean II* proiektua jarri zuen abian 2005eko urrian, lanpostuak sortzeko neurri gisa. Proiektu hau INEMen eta Europako Fondo Sozialaren bitartez finantzatu izan da.

Programa gizon zein emakumeei zuzendurik dago, baina, era berean, 25 urtetik gorako langabetuak izan behar dute guztiek, eta Tolosaldea Garatzenek edota INEMen izena emanda egon. Emakumezkoek lehenetsuna ematen diete, lan merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak baitituzte.

Programan parte hartzen dutenek lanbide heziketa jasotzen dute eta, era berean, lan praktikak egiten dituzte interes publiko edo sozialekin harremana duten obra edo zerbitzuen bitartez. Modu honetan, etorkizunean lan merkatuan sartzeko aukera izango dute.



Iturgintzako tailerrean ari direnetako bat, Iruran egiten ari diren medikuarentzako kontsultan. MADDI SOROA

Guztira, 22 dira tailerretan parte hartzen duten lagunak, eta bi espezializazioetan banaturik daude: geriatría laguntzailea eta igeltseritza. Programaren iraupena urtebetekoa da, sei hilabeteko bi etapatan banatuta; horrela, lanbidea eta heziketa uztartzen dira. Ikasurteak irauten duen bitartean, heziketa-kontratuak izango dute guztiek Tolosaldea Garatzenek eskutik, soldata Nazioarteko Soldata Minimoaren %150 izango delarik.

Geriatría laguntzaile espezializazioari dagokionez, bi zatitan banatzen da urtea: batetik, formakuntza teorikoa dago, urritik urtarrilera bitarteko iraupena duena; bestetik, urta-

rretetik urrira bitarte, praktika bidezko formakuntza jasotzen dute. Jarduera esparruak zentro gerontologikoetan dauden adinekoen arreta, hirugarren adinekoentzako erresidentziak, eguneko zentroak edota etxerako laguntzak izango lirakete, besteak beste. Modu honetan, parte-hartzaileek era praktikoa eta gertutik ezagutu dezakete prestaketan ari diren lanpostua. Hori posible izateko, agureei zuzenduriko laguntzan lan egiten duten eskualdeko hainbat erakunderen laguntza jaso du programak.

Igeltseritzako espezializazioari dagokionez, berriz, lanbidea ikasi eta praktikatzan du-

ten heinean, eskualdeko garapen jasangarriaren aldeko ekintzetan laguntza ematen dute tailerreko hamar lagunak. Horretarako, eskualdeko udalekin elkarlanean ari dira bertako hainbat obra burutuz, besteak beste, Villabonako ikastolara doan espaloiairen sorrera, Altzoko errotaren berritzea, Zizurkilgo udal eskolen berritzea, eskualdeko hainbat hormen sorrera, edota une honetan Irurako mediku zentruaren sorrera.

Programa amaitzean, besteak beste, parte-hartzaileek lanbide prestakuntza hobetzea, heziketa osatzea, eta lan merkatuak sarrera hobetzea lortuko dute.

'LAN TAILERRA' ▶

ZER DA?

'Lan tailerra' Tolosaldea Garatzenek eta INEMek sorturiko programa da, eta lan merkatura sartzeko bidea ahalbidetzea du helburu nagusia.

NON BURUTZEN DA?

Programaren formazio teorikoak Tolosaldea Garatzenek bulegoetan burutzen dira; praktikoak, berriz, lanbideari dagozkion tokietan.

ZENBATEKO IRAUPENA DU?

Normalean urtebeteko iraupena izaten du.

NORI DAGO ZUZENDUA?

25 urtetik gora. Programan parte hartzen duten guztiek 25 urtetik gorakoak izan behar dute.

Langabetuak. Tolosaldea Garatzenek edota INEMen izena emandakoek soilik burutu dezakete tailerra.

Zailtasunak. Lan merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten taldeek hartuko dute parte; besteak beste, 45 urtetik gorakoak, emakumezkoak, etorkinak, arautu gabeko formakuntza duten gazteak, beste arrazoiren batengatik baztertuak direnak...

NOLA DAGO ANTOLATURIK KURTISOA?

Kurtsoa normalean bi zatitan banatzen da: alde batetik formazio akademikoa dago; eta, bestetik, praktikak, lanbidea gertutik ezagutzeko. Ikasurte amaieran azterketa bat egiten da, eta tailerra amaitzean ziurtagiria banatzen da.

ORENDAINGO UDALA
euskaz bizi



Alegiako Udala

2006 UEMA eguna

*"Herria da gurputza, hizkuntza bihotza
euskararen taupada txintxarrion hotsa"*

HASSAN AIT CHAOU ▶ ITURGINA

«Lana egin nahi duenarentzako lanpostua egon badago»

Hassan Ait Chaou marokiar berebertar gaztea da, baina Villabonan bizi da. *Lan Tailerra* programan parte hartu zuen.

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

2000. urteko abuztuan etorri nintzen Villabonara, eta orduetik hemen nago.

Zerk bultzatu zintuen 'Lan Tailerra' egitera?

Villabonara etorri nintzanean Cid-en aritu nintzen lanean, eta ondoren denda batean ere bai. Soldatzaile kurtsoko bat ere egin nuen, baina ez nengoen gustura. Nik iturgintza ikasi nahi nuen, iturgin lana oso gustuko nuelako. Tolosaldea Garatzenen bitartez iturgintza ikastaroaren berri jakin nuen, izena eman eta ikastaroa egin eta bukatu nuen.

Nolakoa egindako tailerra?

Iturgintza ikastaroa egin nuen, martxotik azarorarteke iraupe-

na zuena; teoria eta praktika batzen genituen. Amaieran azterketa bat egin genuen, eta gaudituz egin nuen.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Oso esperientzia ona izan zen, asko ikasi nuen, eta jendearekin ere oso gustura sentitu nintzen, bai nire kideekin eta baita irakasle eta nagusiarekin ere.

Nola izan zen lan merkaturako bidea?

Hiru hilabetez iturgin autonomo batekin aritu nintzen lanean kurtsoko praktikak egiten. Praktikak bukatu bezain laster ea harekin lanean hasi nahi al nuen galdetu zidan, eta nik baietz erantzun nion. Orduetik iturgin bezalal nabil lanean autonomo gisa.

Zorte handia izan duzula esan daiteke?

Zorte pixka bat izan nuen, bai,

prozesu guztia oso jarraian izan zelako, ikastaroa egin, praktikak bukatu eta segituan lanean hasi nintzen. Hala ere, lanpostu bat nahi duenak gogor lan egin behar du. Kurtsuan zehar lana egiten duzu, baina errealitatea guztiz ezberdina da, lan merkaturatu sartzeko lan asko egin behar da. Lana ongi egiten duenarentzako lanpostua egon badago.

Etorkina izateagatik arazorik izan al duzu?

Ikasturtean zehar ez nuen inongo arazorik izan inorrek, oso ongi moldatu nintzen. Autonomo egiteko garaian arazo txiki bat izan nuen, baina gaizki ulertu bat izan zela uste dut.

Gustura lortutakoarekin?

Oso pozik nago, bai. Lanpostu bat lortzeak segurtasun handia ematen dizu, baita egindako kurtsoak ere. ◀



MADDI SOROA



Geriatría tailerrekoak Tolosaldea Garatzeneko ikasgelan. MADDI SOROA

Tailerrarekin gustura

Geriatría espezializazioan aritu diren emakumeak «oso gustura» agertu dira esperientziarekin eta ikasitakoarekin

NAIARA JAUREGUIZAR

«Mota honetako kurtsoetako esperientzia oso ona izaten da eta kurtso honetako ere halaxe izan da, oso esperientzia ona. Gauza asko ikasi ditut eta hainbat gauza egiteko gai ez nintzela uste nuen arren, orain horiek egitea lortu dut».

EULALIA GARZON

«Oso esperientzi ona izan da lan tailerretan bizitakoa, oso gustura nago egindako kurtsoarekin».

MAIDER CUESTA

«Lanbidearen inguruan gauza asko ikasi ditut; gainera, pertsona edadetuekin lan egitea oso sarritua dela konturatu naiz, asko jasotzen baituzu trukean».

PEPI FUENTES

«Ikaragarri gustura nago egindun geriatría laguntzaile kurtsoarekin, oso baliagarria eta erabilgarria izan zaidala uste dut hainbat gauza ezberdinetarako».

MARIA ANGELES EXTREMERA

«Lan tailerra gauza askotarako izan da baliagarria, bai aspektu pertsonalean eta baita lan merkaturari dagokionez ere. Hala ere, sarritan gogorra izaten da familia, ikasketak eta lana uztartzea».

ALICIA NAVASCUZ

«Asko ikasi dut ikastaro honetan. Ez nuen behin ere pertsona helduekin lanik egin, eta ohartu naiz gustoko dudala».

ANOETAKO UDALA

UEMAREN GEROA,
EUSKARAREN HEGOA

943 65 12 00

LEABURU-TXARAMAKO UDALA

Tel.: 67 59 31 • Faxa: 67 37 29
20491 LEABURU-TXARAMA
GIPUZKOA

«Euskal Herrian Euskaraz bizitzearen alde, egin apustua»

IRURAKO UDALA

SARTU EUSKARAREN SAREAN

Tel.: 943 69 13 33 Faxa.: 943 69 33 41



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko uztailaren 2a, igande ▶ IV. urtea

GAURKO
EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. UEMA Eguna, goiz eta arratsaldez.
Ibarra. Gimnastika erritmiko ikastaroa hasiko da bihar. Izen-ematea, 629 11 20 61 edo 943 67 15 44 telefono zenbakietan.
Ikaztegieta. Jubilatuei zuzendutako bilera. Bihar, 11:00etan, liburutegian.
Irura. Garagardo Azoka, 18:00etatik 01:00etara.

JAIAK

Amaroz (Tolosa). 08:00etan, garbiketa Betikoak taldearekin; 09:30ean, lurren Amarozko hildakoen aldeko meza; diana; 10:30ean, eskulanean erakusketa eta euskal erromeria, Amarozko dantza taldearekin; 13:30ean, fatxada eta balkoi loratu eta apainduenen sari banaketa; 14:30ean, bazkaria; 18:30ean, Amarozko dantza taldearen saioa eta aurrekua; 20:00etan, afari-merienda.
Areso. 09:30ean, gosaria; 10:00etan, eskea herrian; 14:30ean, bazkaria; 19:00etan, musika plazan Joxe Anjelekin.
Asteasu. 12:00etan, Pala Txapelketaren finala; gero, sagardo dastaketa plazan; 18:00etan, herritarren arteko herri kirolak; 19:00etan, Tapia eta Leturia.
Larraitz. 12:30ean, meza nagusia; hamaietakoak, trikitilarien eta bertsolarien saioa eta bazkaria.
Leaburu. 09:30ean, diana; 10:30ean, meza eta dultzaineroak eta herriko dantzarien saioa; 12:00etan, Toka Txapelketa eta EHNA tramitatzeko aukera; 18:30ean, Gipuzkoako 1. mailako Aizkolari Txapelketa; gero, Saioa eta Alabier.
Leitza (Gorritaran). 10:00etan, meza, kapilan; gero, aizkolariak, sokatira, umeentzat jokoak eta bertsolariak; 14:00etan, bazkaria, hotelean; 17:00etan, Mus Txapelketa; 19:00etan, dantzaldia; 20:00etan, XXII. Txintxurri txapelketa; 20:30ean, zozketa; gero, txokolata.
Urkuta. 12:00etan, meza nagusia; 12:30ean, Toka Txapelketa; 18:00etan, ume jolasak eta bolo txapelketa; egun osoan, trikitilariak.



Langostino motozale festarako graffitia egin zuten, koloretsu. J. ASTIBIA



Jaialdiko motorik bitxiak erakusketan jarri zituzten. J. ASTIBIA

Langostinoak txigortuta

IBARRA ▶ Langostino Moto Festako lehen eguna ikusgarri suertatu zen; motozaleak herrira iritsi ahala eguneko ikuskizunetan parte hartu zuten



Motorrez trebetasunak frogatzeko jokoak egin zituzten: perrilarekin bultzatuz barrila eramatea, kasu. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Arratsalde erdirako ia 200 motozale bertaratuak ziren IV. Langostino Moto Festara eta gauerako «auskalo zenbat etorriko diren», zioten antolakuntzakoek, ekitaldiak urteik urtera irabazten ari den ospea gogoan. Hala hartzeko moduko ikuskizuna da: ez dago aspertzeko betarik. Errepideetan barrena jasan izaten duten adinako bero kixkagarriarekin, baina mantso-mantso, hainbat joko eginez aritu ziren arratsaldean zehar: trebezia, oreka... zeinek baino zeinek moto ikusgarriagoak kontrolpean zizutela erakutsi zuten, barrila bultzatuz, piloten jokoan, saltxitxarean... Iluntze aldera, Euskal Herria kalea akrobazien pista ere bihurtu zuten. Bitartean, moto asko eta askotarikoak ikusgai zeuden show bike erakustokian, moto-erako osagarriak salgai zituzten hainbat saltokitan, eta graffitirik ere ez zen falta izan. Gaur jarraituko du jaiak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Bihar
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ander Goikoetxea Lasa (Tolosa).
Gaur 5 urte. Zorionak osaba-izeba eta Ugalzen partetik. Ondo pasa!



URTE ASKOAN
Xabi Unanue Gil (Tolosa). Zorionak biharko partez eta ondo pasa udalekuean. Familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Aimar (Tolosa).
8 muxu handi maite zaitugunon partetik.



URTE BAT
Ane Goñi (Amezket).
Eteko sorgintxoari zorionak denon partez, biharko partez.

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

